

GAIA: LEBD – ERAIKINAREN INGURATZAILE TERMIKOAREN ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA HOBETZEKO BIRGAITZE LANAK EGITEN DITUZTEN JABEEN ERKIDEGOIEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZAREN BALDINTZAK EZARTZEN DITUEN DOKUMENTUA.

Gutun honen bidez, eta etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzean zure partaidetza aktiboa kontuan hartuz, jakinarazi nahi dizugu 2017ko apirilaren 27tik indarrean dagoela **laguntzaren baldintzak ezartzen dituen dokumentua – LEBD**. Ebazteke dauden adierazitako data baino lehenago aurkeztutako eskaera guztiei aplikatuko zaie ere, Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzetako Zerbitzu Teknikoek lanak abiaraztea baimendu duten kasuetan izan ezik.

LEBDak jabeen erkidegoei zuzendutako laguntzaren baldintzak ezartzen ditu eraikinen ingurutzailerako termikoetan esku hartzeko birgaitze jarduketak babestutako gauzatzen dituztenean, Eraikuntzako Kode Teknikoaren Energia Aurrezteari buruzko Oinarritzako Dokumentuaren 3. atalean eskatzen diren balio mugak lortzeko, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuaren 2006ko abenduaren 29ko Aginduan araututakoa, etxebizitzak birgaitzeko finantza-neurrie buruzkoa.

LEBDak banaezinak diren 2 dokumentuak osatzen dute: diru-laguntza zuzena esleitzen duen Ebazpena eta horren dokumentu eranskina EGEF-FEDER (Eskualde Garapenerako Europako Funtsa) kofinantzaketaren ondoriozko obligazioak jasotzen dituen. Dokumentu eranskinak informazio-kartela bat obra irauten duen bitartean jendea erraz ikusteko moduko tokian ipiniko dela adierazten du.

Birgaitze obrak LEBD jabeen erkidegoari jakinarazi eta gero hasiko dira, jakinarazpenaren data erregistratu behar dela. Obrarekin hasia jabeen erkidegoak laguntzaren baldintzak ezagutu gabe LEBDa ez betetzea suposatzen du, horrela emandako laguntza atzera botako dela.

Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzetako Zerbitzu Teknikoek ebatziko dituzte alde aurretik hasteko eskaera guztiak, administrazioaren isiltasunez ebaztea eragozteko. Lanak alde aurretik hasteko baimena ematea dagokion kasuetan, jabeen erkidegoari baimen horren jakinarazpenak aurretik adierazitako dokumentu eranskina txertatuko zaio, informazio-kartelaren formatuarekin batera.

LEBDetik kanpo geratzen dira aurretik adierazitako Aginduak, 2006ko abenduaren 29koa, etxebizitzak birgaitzeko finantza-neurrie buruzkoa, jasotzen dituen gainerako jarduketak.

1.- BETEBEHARRAK:

Laguntzak Eskualde Garapenerako Europako Funtsak-EGEF %50ean finantzatuta daude, egoera horretatik honako hauek direlarik eratorritako betebeharrak:

- Jabeen erkidegoak diruz lagundutako jarduerari buruzko **informazio eta komunikazio jarduerak egiten baditu, EGEF-FEDERren bidez Europar Batasunaren finantzaketan parte hartu duela aipatu behar da**. Birgaitze lanei irauten duten bitartean proiektuari buruzko informazioa duen kartel bat ipiniko da jendeak erraz ikusteko moduko tokian eta argazki bat aterako da kartela hori ikusten dela. Argazkia birgaitze lanei buruzko gainerako dokumentazioarekin batera artxibatu behar da eta lanen amaiera justifikatzeko dokumentazioarekin batera entregatu.
- Jabeen erkidegoak eskatzen zaion informazioa aurkeztu beharko du diruz lagundutako birgaitze lanei dagokienean, eskatutako formatuetan.
- Jabeen erkidegoak **kontabilitate berezia edo erraz identifikatu daitezkeen kode espezifikoak erabiliko ditu** diruz lagundutako birgaitze lanetan.
- Jabeen erkidegoak birgaitze lanen garapenerari buruzko **finantza, administrazio eta segimendu informazioa artxibatutako betebeharra du 10 urte igaro arte**, jakinarazpen honen 3. atalean aipatzen diren gastuen ziurtagiriak aurkeztu osteko abenduaren 31tik zenbatzen hasita.

- Jabeen erkidegoak **CO31 “Energia kontsumoaren sailkapena hobetu duten etxe kopurua” adierazlearen lorpen maila jakinarazteko betebeharra du**, lanak amaitu direla jakinarazten duen unean, betiere, informazio hori ez bada alde zuzenetik eman.
- Jasotzen den diru-laguntza **ez da bateragarria** honako hauekin: Energiaren Aurrezte eta Dibertsifikaziorako Institutuaren (IDAE) Eraikinen Birgaitze Energetikorako Laguntzen Programa (**PAREER-CRECE programa**) eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Eraikinen Birgaitze Eraginkorrerako Berritzeko programa.
- Jabeen erkidegoak **lanak egin direla justifikatu beharko du Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzaren aurrean lanak egiteko epemuga bete eta hilabetera**. Horretarako, lanak amaitu direla adierazteko jakinarazpena aurkeztuko dute, esku hartzea osatzen duten kontzeptuen azken zenbatekoak zehaztuz.

2.- LANAK AMAITU DIRELA ADIERAZTEKO AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:

1. **Lanen fakturak eta ziurtagiriak, sinatuta eta zigilatuta**, non enpresa igortzailearen eta jabeen erkidegoaren IFZ-NIFa, data, zenbakia eta BEZ-IVAa adierazi behar dira. Jabeen erkidegoak adierazitako fakturak eta lanen ziurtagiriak PDF formatuan www.etxebide.euskadi.eus/dokufeder orrialdean aurkeztuko ditu zuzenean. Bidalketan diru laguntzaren espediente zenbakia adierazi behar da, baita jabeen erkidegoaren IFZ-NIF zenbakia ere.
2. Egindako **lanaren koloretako argazkiak**.
3. **Informazio kartelaren koloretako argazkia**, jabeen erkidegoak lanek irauten zuten bitartean ikusgai jarri duena.
4. **Lanak egiteko udal baimena eta udal zergak** ordaindu izanaren ziurtagiria.
5. **Lanak amaitu izanaren ziurtagiria, teknikari eskudunak emandakoa** eta bere elkargo profesionalak onetsita, egindako lanen izaerak halakorik eskatzen badu.
6. **Eskumeneko zuzendaritzaren lan likidazioa**, dagokion elkargo profesionalak onetsita egindako lanen izaerak halakorik eskatzen badu.

3.- EGINDAKO ORDAINKETEN ZIURTAGIRIAK:

Laguntzaren ordainketa jaso eta hilabeteren buruan, jabeen erkidegoak **egindako ordainketen ziurtagiriak aurkeztu** behar dizkio Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzari, eta ziurtagiri horietan identifikatuta egon behar dira ordainketaren hartzailea eta igorlea, ordaintzen den fakturaren zenbakia eta data. Ez da eskudirutan egindako ordainketarik onartuko. Ordaintzeko modua banku-transferentzia bat baldin bada, haren karguaren frogagiriaren kopiaren bitartez justifikatuko da, transferentziaren kontzeptuan faktura zenbakia adieraziz, edo, halakorik ezean, ordainketa kontzeptua jasoz. Ziurtagirietan, jabeen erkidegoak ordainketaren igorle gisa ageri behar du. Ez bada hala, ziurtagiriarekin batera banku agiri bat aurkeztu behar da, ordainketaren igorlearen eta hartzailearen identitatea, data eta zenbatekoa ziurtatzeko.

Laguntza ordaindu eta hurrengo hilabetean iraungitzen diren ordainketa atzeratuak honako hauen bidez dokumentatzen badira bakarrik hartuko dira justifikatuztat:

- Txeke pertsonala, bere deskontua banku laburpenean justifikatuz.
- Banku-txekea, hornitzaileak emandako jaso izanaren agiria gaineratuz, eta agiri horretan ordaintzeko modu gisa onartuz.
- Kanbio-letra, onartua.
- Kreditu-gutun atzeraezina, berretsita, edo dokumentu-kreditu atzeraezina.

Jabeen erkidegoak **ordainketen ziurtagiriak PDF formatuan** www.etxebide.euskadi.eus/dokufeder orrialdean aurkeztuko ditu zuzenean. Bidalketan diru laguntzaren espediente zenbakia adierazi behar da, baita jabeen erkidegoaren IFZ-NIF zenbakia ere.

Argibideren bat behar izanez gero, **943 344 160** zenbakira hots egin, posta elektronikoz idatzi xsanchez@oarsoaldea.eus helbidera edo www.oarsoaldea.eus [web orria bisitatu](#).

Besterik gabe,

Agur bero bat,

A handwritten signature in blue ink, appearing to read 'Xabier Sanchez'.

Xabier Sanchez
Hiri-berriztapen eta Mugikortasun Sailaren Zuzendaria
Oarsoaldea